

67

Uztaila  
2026

# begira



Ingurune konplexuan ere,  
**ULMAk hazten jarraitzen du**

**Futbola**  
munduko  
txapelketatik  
haratago



**Gerra batek**  
plan guztiak  
aldatzen  
dituenean



Aurrera egiten duten proiektuak, inspiratzen duten pertsonak,  
eraldatzen duten ideiak eta gure hazkuntza dakarten lorpenak.



ASKO **DESKUBRITZEKO**



begira  
online



youtube



linkedin



**GALDU EGINGO DUZU?**

ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA

7

**Bitzta berri bat euri-urarentzat**



9

Higiene handiena **ontziratze freskorako**



ELKARRIZKETA

14-15

**Iñaki Gabilondo,**  
ULMA Taldeko  
zuzendari nagusia  
(2009-2026)



ERREPORTAJEA

**begira - 67**

Uztaila 2026

ARGITARATZAILEA

Grupo ULMA S. Coop.  
Bº Garagaltza 51  
20560 OÑATI,  
Tel: 943 25 03 00

ZUZENDARITZA

Juan Carlos Malet  
jcmalet@ulma.com

EDITORE KONTSEILUA

Iratí Goitia,  
Maria Sendin,  
Sara Soria,  
Nerea Burgoa,  
Itsaso Letamendi,  
Ane Aramendi,  
Raul García,  
Mikel Mirena Rojo,  
Igone Basterra,  
Juan Carlos Malet

G-L: D00203-2026



**Mugigune,**  
errehabilitaziorako  
eta prebentziorako  
osasun gune berria

22-23

Musikaz  
haraindiko  
**ahotsak**



24-25



**ULMA,**  
**taldean,**  
**garaile**  
Donostian

26

# Ingurune komplexuan ere, ULMAk hazten jarraitzen du

ULMAk bere historiako jarduera-bolumen handiena lortu du, lehiakortasun handiko ingurune zorrotz batean. 2025eko salmenta, enplegu eta inbertsio zifrek errealitate bat berresten dute: proiektu sozioenpresarialak sendo jarraitzen du aurrera egiten, bere esentzia kooperatiboa galdu gabe.

ULMA Taldeak, 2025ean, bilakaera positiboa izan du bere jardueran, 1.239 milioi euro ingurukoa, ziurgabetasun globalak, muga zergen inpaktuak eta industria sektoreko marjinen gaineko presioak baldintzatutako ekitaldian.

Testuinguru horretan, ULMAk hazkunde jarraiturako gaitasuna berrestu du, bere eredu kooperatiboan, dibertsifikazio sektorialean eta nazioartean presentzia handia izatean oinarrituta.

Hazkundearekin batera, inbertsio ahalgin handia egin da, 124,5 milioi euro bideratu baitira gaitasun industrialia indartzera, eraginkortasuna hobetzera eta etorkizuneko garapena prestatzera. Horri eskuratutako 115 milioi euroko finantzaketa gehitu behar zaio.

Ildo horretan, Aitor Ayastuy ULMA Taldeko zuzendari nagusiak adierazi duenez, "gure finantza egitura indartu dugu, gure hazkunde prozesuetan aurrera egiten jarraitzeko eta iraunkortasunaren, berrikuntzaren, modernizazioaren eta nazioarteko

## 2025eko zifra gakoak



**1.238,9M€**  
SALMENTAK

**+% 7,6**  
HAZKUNDEA



**336**  
LANGILE BERRIAK

**124,5M€**  
INBERTSIOA

**94,8M€**  
IRABAZI GARBIA

**6.083**  
PERTSONAK

hedapenaren arloan funtsezkoak diren inbertsioak bizkortzeko".

Enplegua ere Taldeak bizi duen unean isla izan da berriro: 336 langile berri sartu dira, 6.000 lagunetik gorako plantilla osatuta, eta enplegu egonkor eta kalitatezkoarekiko kon-

promisioa, proiektuaren zutabeetako bat, sendotu egin da.

Era berean, 2025ean ULMA Taldeak 1,3 milioi euro bideratu ditu guztira gizarte, kultura, hezkuntza eta komunitate ekimenetara, garapen iraunkortasunarekiko eta bere ingurunean duen eragin positiboarekiko konpromisoa sendotuta. Jarduera horiek ULMAk jarduten duen lurraldeen aurrerapen ekonomiko eta sozialean aktiboki laguntzeko duen bokazioa islatzen dute.

Zifretatik haratago, 2025eko emaitzak mezu argia uzten du: ULMAk hazten jarraitzen du, bere nortasunari eutsita, eta lehiakortasuna, sustraitzea eta pertsonetikiko eta ingurunearekiko konpromisoa integratuta.



*"Pauso irmoarekin jarraitzen dugu aurrera, ezberdin egiten gaituen horretan oinarrituta: epe luzera begiratzen duen proiektu partekatua".*

**AITOR AYASTUY**



## Taldean partekatzen eta erabakitzen den proiektua

Maiatza eta ekaina Batzar Nagusien garaia izan dira ULMA Taldeko kooperatibetan. Gure eredu kooperatiboaren zuta-beak -informazioa, parte hartzea eta etorkizuna elkarrekin eraikitzea- nabarmentzeko aukera izan da.

Urtero bezala, hau da bitzta kooperatiboaren unerik esanguratsuenetako bat. Batzarretan ekitaldiko emaitzak, negozioen bilakaera eta etorkizuneko aurreikuspenak partekatu dira, ULMA Taldearen proiektu komunaren ezagutza indartuta.

Testuinguru horretan, joan den ekainaren 12an, azken batzarren ondoren, une berezia izan zen, Iñaki Gabilondoren



agurrarekin, 17 urtez zuzendaritza nagusiaren buru izan ondoren. Agurreko hitzetan, Gabilondok proiektu sozioenpresarialaren bilakaerari sendotasuna eman dioten eta ULMA Taldearen Enpresa Proiektuaren oinarriak ezarri dituzten funtsezko mugarri batzuk errepasatu zituen. Aitorpen eta txalo kolektiboa jaso zuten hitz horiek.



## UZKren lehen batzarra

Taldeko kooperatiba gazteenak, ULMA Zerbitzu Korporatiboak (UZK), lehen Batzarra egin du aurten, duela gutxi eratu ondoren. Bigarren mailako kooperatiba bat da, Taldeko zerbitzu zentraletan lan egiten duten pertsona guztiak bilduko dituen, horiek denek esperientzia kooperatibo partekatua izan ahal izateko.

## ULMAk Industriaren Euskal Kontseiluan parte hartu du

ULMAk Industriaren Euskal Kontseiluan lehen bileran parte hartu du berriki, Euskadiko industria enpresa nagusietako batzuk eta erakundeetako ordezkariak biltzen dituen topagunean, sektorearen etorkizunari buruzko diagnostikoa eta ikuspegia partekatzeko.



Foro horrek funtzio garrantzitsu bat du: euskal industriari eragiten dioten erronkak bateratzea, lehentasunak lerrokatzen, arau aldaketak aurreikusten eta ekoizpen sarearen lehiakortasuna indartzen laguntzeko.

ULMAk horrelako organoetan parte hartzea Taldearen posizionamendu instituzionalerako estrategiaren parte

da, funtsezko eragileekin harremanak sendotzean, ezagutza partekatzean eta enpresen errealitatearekin konetatutako industria politikak eraikitzen laguntzean oinarrituta.

Topaketan, erakundeen eta enpresen arteko lankidetzaren indartzearen beharra nabarmendu zen, industria

lehiakorra, iraunkorra eta kalitatezko enplegua sortzeko gai izango dena bultzatzeko.


ULMArentzat, foro horietan egoteak erreferentziako eragile industrial gisa eta Euskadiko etorkizun industrialaren definizioan solaskide gisa duen zeregina indartzen du.

## Aurrerapausoa inpaktuan eta gardentasunean

ULMAk bere lehen Iraunkortasun Memoria argitaratu du, 2025eko ekitaldiari dagokion ingurumen, gizarte eta gobernantzari buruzko informazioa modu integratuan jasotzeko. Azken batean, Taldeak ingurunean, pertsonengan eta bere kudeaketa ereduaren eragina kudeatzeko moduaren ikuspegi globala da.

“Memoria hau egiteak gardentasunean aurrera egiteko borondateari erantzuten dio, eta iraunkortasun txostenean erreferentziako nazioarteko estandarrei jarraituz garatu da, eta materialtasun bikoitzeko analisi batetik abiatuta, zeinak ULMArentzat eta bere ingurunearentzat garrantzitsuenak diren gaiak identifikatzea ahalbidetu duen”, zehaztu du Javier Orbeak, ULMA Taldeko finantza zuzendariak.

Besteak beste, dokumentuak hainbat arlotan egindako aurrerapenak jasotzen ditu, hala nola energia kontsumoaren murriztea, tokiko hornidura kateak bultzatzea, gobernantza indartzea eta segurtasuna eta garapen profesionala sustatzea. Memoria lehen urratsa da Taldearen inpaktua ikuspegi bateratua eta etorkizuneko gardentasun eta etengabeko hobekuntza ekimenak garatzeko oinarria eskaintzeko.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

# Bizitza berri bat euri urarentzat

Aurrerapen batzuek, produktu bat hobetzeaz gain, gure ingurunea zaintzeko modu berriak irekitzen dituzte. AQUORArekin, ULMA Architectural Solutionsek aurrerapauso bat eman du hiriko uraren kudeaketan, ibaietara iritsi aurretik hiri kutsadura harrapatu, iragazi eta desagerrarazten duten sistema adimendunen bidez.

Hirietan zehar dabilen euri urak kutsadura ikusezina dakar: metal astunak, mikroplastikoak, gune berde eta kimiko industrialetako pestizidak. Aurrez tratatu gabe, emari horrek zuzenean ibaietan eta akuiferoetan amaitzen du, biodibertsitatea eta edateko ura mehatxatuz.

Erronka horri erantzuteko, ULMA Architectural Solutionsek Drainatze Ja-sangarriko Hiri Sistemen (SUDS) gama berri bat garatu du, IFAT Munich 2026 azokan nazioartean aurkeztu dena.

Soluzio berri horrek polimero hormigoizko drainatze kanalen errendimendu globala indartzen du, gainazaleko urak modu eraginkorrean hartzeko eta bideratzeko funtsezko elementua baita. Hori egiteko, iragazketa-kutxatila



AQUORA gama Municheko IFAT azokaren 2026ko edizioan aurkeztu zen.

bat erabiltzen du, irtenbide eksklusibo batekin hornitua dagoena. Gainera, euri-urak iragazi, atxiki eta biltegitratzeko egitura modularrak ditu.

Sistemak bi fasetan garbitzen du ura: lehenik, solido lodiak atxikitzen ditu, eta, ondoren, metal astunak, hidrokarbuoak eta pestizidak ezabatzen

ditu. Gainera, ekipamenduak segurtasun-sistema bat du, euri-jasa handiko uneetan gainezka egitea saihesteko.

Garapen horrek islatzen du ULMAk pertsonen bizitza eta hirietako ja-sangarritasuna hobetzen laguntzen duten irtenbideak emateko duen konpromisoa.



Kutxeta iragazlea eta egitura modularrak.

## AQUORA

IBAIETARA IRITSI AURRETIK  
HIRIKO URAREN KUTSADURA  
ATZEMATEN, IRAGAZTEN ETA  
EZABATZEN DUTEN SISTEMA  
ADIMENDUNAK

AQUORAREN  
FUNTZIONAMENDUA





**ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS**

# Etorkizuneko arkitekturarako erreferentea

**BDOren** egoitza berriaren diseinuan, ingurumena ahalik eta **gehien errespetatzea** izan zen funtsa.

ULMA Architectural Solutionsek bere aztarna utzi du Bredako bulego eraikin ekologikoenean, Herbehereen hegoaldean. BDOren egoitza berria da, mundu mailako zerbitzu profesionalen erakunde handienetako bat, premisa negoziatzen baten pean diseinatu dena: ingurumena ahalik eta gehien errespetatzea.

Karbono aztarna minimizatzeko, proiektuak ingurumena errespetatzen duten azken belaunaldiko materialen alde egin zuen. Nabarmentzekoak dira sostenguko egiturarako erabilitako zur kontralaminatua eta kanpoko estaldurarako erabilitako Stoneo plakak. Fatxada aireztatuaren sistemak, funtzionaltasunaren eta estetikaren arteko oreka ezin hobea emateaz

gain, isolamendu termiko eta akustikoan hobekuntza nabarmena bermatzen du.

Proiektu hau arkitektura jasangarriaren erreferente gisa finkatzen da, berrikuntzak, errendimendu teknikoak eta diseinu kontzienteak elkarrekin aurrera egin dezaketela erakutsiz.

**ULMA CONVEYOR COMPONENTS**

# Tokiko industria, inpaktu globala

Otxandiotik, munduko erronka handiko industria-inguruneetan jarduten duten irtenbideak garatzen ditu: Txileko edo Peruko kobre meategietan erabiltzen direnak, bai eta Finlandian edo Kanadan muturreko tenperaturak jasaten dituzten instalazioetan eta hautsa eta hezetasuna dagoen lekuetan etengabe erabiltzeko direnak. Akatserako tarterik ez dagoen lekuetan, arrabolek, girlandek eta danborrek ziurtatzen dute denak mugimenduan jarraituko duela.



Hasieran (1960), nekazaritzako makineriaren fabrikazioari lotuta egon zen, eta industriaren bilakaera eta merkatuaren behar berriak direla-eta uhal garraiatzaileetarako osagaiak diseinatzen eta fabrikatzen hasi zen pixkanaka. Gaur

egun, nazioarteko erreferente bihurtu da materialak garraiatzeko soluzioetan.

Bilakaera horrekin batera, nazioartekotzearen aldeko apustu sendoa egin du. Gaur egun, herrialde as-

kotan dago, eta eskakizun handiko aplikazioetan lehiatzen da konpainia handiaren aurrean, muturreko prozesuetara egokitutako erresistentzia mekaniko eta iraunkortasun handiagoko produktuen alde eginez.

**Nazioarteko salmenten bilakaera**



**Kanpo merkatua 2025ean**



Flow Pack berria INTERPACK 2026an. Azokan zehar, etengabeko garbiketa prozesuak egin zizkieten, bere prestazioak erakusteko.

## ULMA PACKAGING

# Higienerik handiena **ontziratze freskorako**

Elikagaiak ontziratze sektoreak aurrerapauso bat eman du, bi eskakizun nagusi uztartzeko gai diren ekipamendu-belaunaldi berri batekin: **ontziratze freskorako higiena maximoa eta produktibitate handiagoa. Elikagaien segurtasuna lehenetsuneko den testuinguru batean, prozesatze plantek errendimendua arriskuan jarri gabe garbiketa intentsiboak ahalbidetzen dituzten soluzioak behar dituzte.**

ULMA Packagingen Flow Pack FM 400 berria da behar horri emandako erantzuna. Ekipoak higiena eta abiadura uztartzen ditu eta inflexio puntu bat izan da bere kategorian.

Sistema garbigarriak bazeuden, baina inork ez zuen halakorik lortu Flow Pack ontziratze makinaren sektorean, hau da,



**JOSU GARCIA**

*“Merkaturatze hori ingeniartzako erronka bat eta bilakaera bat izan da”.*

elikagaiak plastikozko poltsa zigilatuta batean biltzen dituzten makinetan. Soluzioa merkaturatuta, ULMA da une honetan horre-

lako sistema bat argi eta garbi eskaintzen duen lehen fabrikatzailea.

Josu Garcia, Flow Pack gamako product managerrak, azaldu du merkaturatze hori ingeniartzeko erronka bat izan dela, baina baita bilakaera bat ere. Modeloak aurreko teknologia berrituta eta modernizatuta du, eta produkzio erritmoa handitzea lortzen du, minutuko 110 ontzi egitetik 150 egitera igarota. Kalitatea ziurtatzeko, makinak ixteko sistema berri bat du, zeinarekin zigilatze erabat hermetikoa bermatzen den.

Higiene eskakizunarekiko hain erresistentea den ekipo bat lortzeko, bi alderditan zentratu dira: alde batetik, osagai elektronikoen babesa eta, bestetik, korrosioarekiko erresistentzia.

Epe laburrean, garbiketa funtsezkoa izango da elikaduraren sektorearentzat. Horregatik, ULMA Packaging dagoeneko ari da teknologia hori beste gama batzuetan aplikatzen, ekoizpen handia eta higienarik handiena elkarrekin doazela erakutsiz.



**ULMA HANDLING SYSTEMS**

## Biltegi seguruago, erosoago eta eraginkorrago baterantz

**ULMA Handling Systemsek EHUko Udako Ikastaroetan parte hartu du. Aurtengo edizioa MIT (Massachusetts Institute of Technology) eta Osalan erakundeekin izandako lankidetzak markatu du, eta gaur egungo erronka nagusietako bati erreparatu dio: pertsonentzat logistika-ingurune seguruagoak, erosoagoak eta eraginkorragoak sortzea**

Logistikak eraldaketa sakona bizi du, eta teknologia jada ez da produktibitate palanka bat, ongizatearen zerbitzura dagoen tresna bat baizik. Testuinguru horretan, Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterrak antolatutako Pertsonengan oinarritutako irtenbideak izeneko udako ikastaroak adituak bildu zituen, berrikuntza pertsonen zerbitzura nola jarri behar den aztertzeko. Horren harira, ULMA Handling Systemsek esperientzia praktikotik eskaini zuen bere ikuspegi.

Eñaut Sarriegi Merkataritza eta Marketin zuzendariak azpimarratu zuen automatizazioa aliatu gisa ulertu behar dela eskakizun fisikoa murrizteko eta lanaren



**EÑAUT SARRIEGI**

*“Automatizazio intralogistikoa da enpresa batek izan dezakeen aliaturik onena”.*

*“Automatizazioa aliatu gisa ulertu behar da, eskakizun fisikoa murrizteko eta lanaren kalitatea hobetzeko”.*

kalitatea hobetzeko: “Pertsonak edozein ingurune logistikoren erdigune izan dira, dira eta izango dira gero ere”.

Ikuspegi zabalago batekin lerrokatutako hausnarketa: eraginkortasuna, segurtasuna eta kalitatea ez dira helburu independenteak, baizik eta soluzioen diseinuak horiek erabiltzen dituztenengan fokua jartzen duenean elkarrekin aurrera egiten duten dimentsioak.

Piramide demografikoa alderantzizkoa da eta lan egiteko adinean dagoen biztanleria ehuneko 7,6 puntu murriztuko da 2052rako, Estatistikako Institutu Nazionalaren proiezioen arabera. Horren aurrean, eskulanaren eskuragarritasuna txikiagoa izango da. Sarriegik etorkizunari buruzko funtsezko hausnarketa batekin itxi zuen ekitaldia: “Automatizazio intralogistikoa da enpresa batek izan dezakeen aliaturik onena”. Ikuspegi horrek teknologiaren aldeko apustua egiten du, pertsonen lana hobetzeko eta talentua atxikitzeko beharrezko palanka gisa.

## ULMA LIFTING SOLUTIONS

# Barrutik jaiotzen den marka

Hainbat marka elkarrekin aritu diren urteetako ibilbidearen ostean, ULMA Lifting Solutionsek etapa berri bat ireki du, bere nortasuna bateratu nahian. Urrats hori emanda, merkatuan duen presentzia antolatzeaz gain, denboran zehar eraiki duen guztia indartu du: lan egiteko modu partekatua eta bereizgarria.



Ibai Goenaga, ULMA Lifting Solutionseko presidentea, bere hitzaldian.

Arantzazun egindako Brand Dayak 140 pertsona inguru bildu zituen markaren bilakaera partekatzeko eta ULMA Lifting Solutionsen etorkizuneko ikuspegia indartzeko jardunaldi batean. Hitzordu horrek aukera eman zuen elkarrekin atzera begiratzeko eta egindako bidean bakoitzak emandakoa aitortzeko, eta, aldi berean, negozioaren etorkizuna proiektatzeko.

Jardunaldia maiatzaren 15ean egin zen, Batzar Nagusiarekin batera, "Lifting what we are" lelopean. Mezu horrek bat egiten du gaur egun ULMA Lifting Solutions definitzen duenarekin: erakunde bizia, mugimenduan dagoena, 40 urte baino


gehiagoko historia duena, eta metatutako esperientzia, bezeroarekiko hurbiltasuna eta, batez ere, hori posible egiten duten pertsonak oinarri hartuta eraldatzen jarraitzen duena.

Ekarpen guztien baturak ahalbidetzen du **proiektu komuna** bultzatzen jarraitzea.

Topaketan, ahotsa jarri zitzaion aldaketa horren esanahiari. Ibai Goenaga ULMA Lifting Solutionseko presidentea gogorarazi zuen marka ez dela soilik zer bait bisuala, baizik eta egunez egun eraiki den egiteko modu baten adierazpena. "Marka bat promesa bat da, eta promesa hori egunero bete behar dugu", adierazi zuen.

Brand Day ekitaldiak mezuak baino zer bait gehiago utzi zuen: kide izatearen harrotasuna eta etapa berri honekiko konpromiso partekatua indartu zituen. Izan ere, izenetik edo nortasunetik harago, ULMA Lifting Solutionsen benetako bultzada egunero proiektuari zentzua ematen dioten pertsonengan dago oraindik ere.

Jardunaldiak kide izatearen zentzua, harrotasun partekatua eta etapa berri hau eraikitzen jarraitzearen garrantzia indartu nahi izan zituen, ULMA Lifting Solutions osatzen duten pertsona guztien konpromisotik abiatuta. Topaketa elkar ezagutzeko, etorkizunari begiratzeko eta ULMA Lifting Solutionsen benetako bultzada egunero proiektua posible egiten duten pertsonengan dagoela gogoratzeko jardunaldia izan zen.



"Dinamika parte hartzailea, pertsonen ekarpenek proiektu komuna goratzen dutela sinbolizatzen".

## ULMA CONSTRUCTION

# Proiektu handiak eraikiz

Hiri handietan espazioa aprobetxatzeko beharrak bertikalean eraikitzea bultzatu du, etorkizunari begira gero eta gehiago baloratzen den alternatiba gisa.

Altuera handiko egiturak eraikitzeak erronka logistiko eta humano handiak planteatzen ditu, non obran lan egiten duten langileen segurtasunak eta denboraren optimizazioak batera egin behar duten aurrera.

Erronka horri erantzuteko, sektoreak konfiantza du finkatutako ingeniari teknologietan, hala nola ULMA Constructionen sistema autoigokarrietan. "Eraikuntzak aurrera egin ahala enkofratuak eta lan plataformek gora egitea ahalbidetzen duten egiturak dira", azaldu du Monica Rodriguez ULMA Constructioneko product managerak. Eraikuntza metodo tradizionalak ez bezala, plataforma egiturari lotuta geratzen da, eta mekanismo hidrauliko batek igotzen du eraikina hazi ahala, igotzeko obra garabirik erabili behar izan gabe.

Autonomia horrek markatzen du desberdintasuna proiektu handietan. Esate baterako, New Yorkeko The Brooklyn Tower, Brooklyngo skyline-



The Brooklyn Tower, Nueva York.



Skyliner, Varsovia.




Zumelegiko biaduktua, Elorrio.



ko eraikinik altuena, edo Varsoviako Skyliner, 45 solairuko altuerako bulego eraikina. Irtenbidea giltzarri bera da azpiegitura zibiletan, hala nola Elorrioko Zumelegiko biaduktuan, non

71 metro ere zituzten pilareak egin baitziren, hiru egunean behingo hormigoitze zikloekin. Horietan guztietan, sistemak ingurune itxia eskaintzen du, segurtasun osoz lan egiteko aukera ematen duena.



Autonomiaren balioa altueretan

## Garabiaren independentzia:

Jasotzeko sistema hidrauliko propioa duenez, egitura modu autonomoan igo daiteke, obraren garabiaren mende egon gabe. Horrek baliabideen kudeaketa eraginkorragoa errazten du, eta lantaldeek alferrikako itxaronaldiak egitea saihesten du.

## Haizeak geldialdirik eragin gabe:

Garabiaren mende dauden sistemek ez bezala, soluzio horrek martxan jarraitzen du, baita haize baldintza txarretan ere. Eraikinaren egiturari bertan duen ainguraketari esker, lanak modu seguruan jarraitzeko eta obrako geldialdiak minimizatzeke aukera ematen du.



**ULMA AGRÍCOLA**

## Klima aldaketaren aurrean barestutako uztak

**Klima aldaketa nekazaritza eraldatzen ari da. Gero eta ekoizle gehiagok aukeratzen dituzte egonkortasuna hobetzen duten, arriskuak murrizten dituzten eta laboreen eraginkortasuna handitzen duten sistema babestuak.**

Nekazaritza etapa kritikoa igarotzen ari da. Azken kanpainan, sektoreko espezialistek galera masiboak izan dituzte uztetan, kazkabarren, euri jasan eta muturreko bero gertakarien ondorioz. Ekoizleek adierazi dute ezinezkoa dela babesik gabe kalitatezko frutak eta barazkiak lantzea. Adituen analisiaren arabera, aire libreko uztak elementu meteorologikoen mende dauden bitartean,

estaldura azpiko ekoizpenak kalitate aparta erakutsi du. Erronka horren aurrean, ULMA Agricolaren soluzioek kazkabarren, izotzaren eta hai-zeen aurkako erresistentzia handiko egitura modularrak eskaintzen dituzte. ULMA Agricolaren sistemek

Sektorearen kalkuluen arabera, sistema horiek **% 20 eta % 50 artean hobetu dezakete produktibitatea.**

### Negutegien onurak

- Ingurumen kontrola.
- Ur kontsumoa aurrezteak.
- Ekoizpen handiagoa m<sup>2</sup>-ko.
- Laboreak izurriteetatik eta gaixotasunetatik babestea.

temperaturaren eta hezetasunaren kontrol zehatza ahalbidetzen dute, baita izurriteen erabateko kudeaketa ere, merkatu zorrotzenetarako kalitate egokia ziurtatuta. Era berean, soluzio horiek uraren kontsumoan gehiago aurrezteak eta ureztatze kontrolatu bidez ur gutxiago lurruntzea bermatzen dute, eta, horrela, metro koadroko errentagarritasuna optimizatzen da.

Negutegietako nekazaritza ekoizpena kontrolatu eta ziurtatuko duten soluzioen beharra negozio bolumenean hazteko aukera bihur daiteke ULMA Agricolarentzat. Instalazio horiek eskaintzen duten babeslekua gaur egun funtsezko pieza da aurreikusten gero eta ezinezkoagoa den den klimaren aurrean ekoizpen eraginkorra izateko.

IÑAKI GABILONDO,

**“ULMA proiektu sendoa da, non pertsonak elkarrekin lan egiteko borondate argia duten”**



**ULMA 30 urte baino gehiago eman ondoren, eta azken 17 urtean ULMAko zuzendari nagusi izanda, Iñaki Gabilondok agur esan du, egindako bidearen, proiektuaren eta hura posible egiten duten pertsonen gaineko begirada pertsonala eskainita. Etapa bat itxi eta proiektu kooperatibo industrial paregabe baten sendotzea ulertzen laguntzen duen elkarrizketa.**

**Iñaki, hainbeste urteren ondoren, zer sentazioarekin joaten zara?**

Egin dugun lanarekin pozik noa, eta oso eskertuta nago gertutik lan egi-

teko aukera izan dudan pertsona guztiakin.

Oso profesionala eta ona ere den jende asko ezagutzeko zortea izan dut. ULMA guztion artean eraikitzen den proiektu bat da, eta horren parte izan ahal izatea pribilegio bat da.

**ULMA ideia batean laburbildu behar-ko bazenu, zein izango litzateke?**

Proiektu paregabea da, berezitasunetik ulertua. ULMA bere historian zehar aurkeztu zaizkion erronkei aurre egiteko hartu ditugun erabaki guztien emaitza da. Guztiek aitortutako nortasun ezaugarri batzuk garatu ditugu, eta hor Taldearen sentimendu sendoa nabarmenduko nuke.

**Askotan hitz egin duzu koherentziaz. ULMA, zer esan nahi du horrek?**

Horrek esan nahi du ULMA hartu diren erabaki garrantzitsu guztiak logikoak direla, Taldea sortu zenetik definitu gaituenarekin bat datozela, eta gure proiektua indartzeko eta sendoago bihurtzeko balio izan dutela.

**“Pertsonak hemen daude *proiektu honetan sinesten dutelako*”.**

## ULMA TALDEKO ZUZENDARI NAGUSIA (2009-2026)

Eta esango nuke koherenteak izateaz gain erabaki ausartak izan direla, bai negozioetan, bai Talde mailan.

Esan dudan bezala, proiektu berezia gara, eta, horregatik, jarduera guztiak garenera egokitu behar ditugu. Ezin ditugu ereduak kopiatu. Ikas dezakegu, baina beti gure errealitatera egokituz. Horrek koherentzia eskatzen du eta baita ausardia ere.

Eta, zentzu horretan, ULMAko negozioei eta pertsoneri eskerrak eman behar zaie: ausartak izan dira. Une konplexuetan erabakiak hartu dituzte, beste aldera begiratu gabe. Gaitasun hori gure indarguneetako bat da.

### **Eta zeintzuk dira Taldearen nortasun ezaugarriak?**

Niretzat, ezaugarrietako bat oso agerikoa da: hau adostutako borondateen gainean eraikita dago, eta borondate horiek hartzen dugun erabaki garrantzitsu bakoitzean berresten ditugu. Kooperatiba bakoitzak erabakitzen du, negozio bakoitzak bere autonomia du, baina erabaki dugu proiektu partekatu bakarra dagoela.

Horrek asko eztabaidatzea eta adostasuna lantzea eskatzen du. Taldearen kulturak, hain zuzen ere, hori azpimarratzen du: batzen gaituena lantzea eta guztion ongian pentsatuz erabakitzea.

### **Ibilbide horretan, zer une nabarmenduko zenituzke?**

Asko egon dira. Batzuk oso onak, eta beste batzuk oso gogorrak. Hazkunde, krisiak, erabaki zailak... Baina zerbaitekin gelditu behar banaiz, behar izan denean kolektiboak elkarrekin erantzuteko erakutsi duen gaitasunarekin geldituko naiz. Eta hor ikusten duzu proiektu batek funtsik duen.

### **Zer erakutsi dizu ULMAk?**

Partekatutako proiektuak taldean eraikitzen direla. Hemen inork ez du arrazoi osoa. Erabakiak aberastu egiten dira partekatzen direnean, eta horrek zerbait oso baliotsua sortzen du: konfiantza. Asko ikasi dut pertsonengandik: lan egiteko modua, konpromisoa, erantzukizuna... Hori da ULMAren benetako balioa. Pertsonak hemen daude proiektu honetan sinesten dutelako.

### **Orain zein etapa hasten da zuretzat?**

Beste bat. Eta ilusioz egiten diot aurre. Patxada handiagoz, eta denborarekin, familiari eskaintzeko eta beste erritmo batean bizitzeko. Modu profesionalean bereiziko naiz, baina ez emozionalki; 30 urte izan dira, eta nire bizitzaren zati

*“ULMA ez da lan egiteko leku bat bakarrik; gauzak egiteko modu bat da”.*

garrantzitsu bat izan da, eta beti egongo naiz adi ULMArekin zerikusia duen guztiari. Baina bai, ilusioz aurre egiten diodan etapa berri bat da.

### **Amaitzeko: ULMAko zein zati eramango duzu zurekin?**

Pertsonak eramaten ditut. Eta lana ulertzeko modu bat. ULMA ez da lan egiteko leku bat bakarrik; gauzak egiteko modu bat da. Hori da geratzen dena.



*“Taldearen kulturak azpimarratzen du batzen gaituena landu behar dela, eta guztion ongian pentsatuz erabaki”.*



# Futbola munduko txapelketatik haratago

70.000 pertsona erabat emozionatuta. Titulua, azken penaltiaren mende. 35.000 lagun atezainak penaltia gelditzea desiratzen, eta beste 35.000ak, berriz, jokalaria huts ez egitea desiratzen. Gola eta eromena. Emozio deskribaezin batek zeharkatzen du talde horretako zaleen bizkarrezurra. Estadio horretan daudenak eta ehunka kilometrora daudenak. Futbola hori da: emozio partekatua, kide izatea, gu geu baino handiago den zerbaiten parte sentitzeko modu bat. Talde batena. Istorio bat. Baina beste aurpegia ere badu. Batzuentzat, eliteko futbola negozio globala da, eta interes ekonomikoak, boterea eta irudi estrategiak elkarrekin bizi dira.

Agian horregatik esan zuen Eduardo Galeano idazle uruguaitarrak futbola dela ateorik ez duen erlijio bakarra. Horregatik ere aitortzen zuen jendeak sigla politiko-koz edo bikotekidez alda dezakeela, baina inoiz ez futbol taldez.

Dena dela, futbolaren boterea ukaezina da, eta herri osoen aldarreak aldatzeko gai da. Batez ere, Munduko Txapelketan gaudenean, oraintxe

XXI. mendeko estadioak jada ez dira soilik kirol esparruak: azpiegitura multifuntzionalak dira, non segurtasunak, efizientziak eta erosotasunak gero eta soluzio tekniko aurreratagoak eskatzen dituzten.



**ULMAk garatutako soluzioak azken urteetako kirol obra garrantzitsuenetako batzuetan egon dira, hala nola Anoeta Estadioan. Lan hori askotan ikusezina da ikuslearentzat, baina erabakigarria da, berriz, horrelako azpiegituren funtzionamendua eta segurtasuna bermatzeko.**

bertan bezala. Duela egun batzuetatik Munduko Futbol Txapelketa jokatzeko ari da Estatu Batuetan, Mexikon eta

Kanadan. Ikuskizun paregabea, beste kirol ekitaldi batzuk gainditzen dituen, hala nola Udako Joko Olinpikoak

edo Superbowla. Izan ere, 2022an Qatarren jokaturako azken Munduko Txapelketako zifren arabera, 5.000 milioi lagunek jarraitu zuten ekitaldia formaturen batean.

Milioika zalek jarraitzen dituzten irudi horien atzean konplexutasun tekniko eta industrial izugarria dago. Eta hor ere agertzen da ULMA.

Izan ere, fokuak munduko edozein agertoki ikonikotako zelaia seinatzen duenean, azpiegitura horiek posible egiten dituzten ehunka profesional eta enpresaren lana ere argitzen ari da – askotan oharkabea pasatzen bada ere –. Horien artean, gurea.

#### **Hormigoia eta altzairua baino askoz gehiago**

XXI. mendeko estadioak ez dira kirol esparruak soilik. Funtzio anitzeko azpiegiturak dira, dozenaka mila pertsona segurtasunez, eraginkortasunez eta erosotasunez kudeatzeko pentsatutako espazioak. Xehetasun bakoitzak honako hauek hartzen ditu kontuan:

Ibrox Stadium, Glasgow (Rangers FC).





2014ko Munduko Futbol Txapelketa. Brasiliako Mané Garrincha Estadio Nazionala.

ULMAk nazioarteko erreferentziazko estadioetan parte hartzeak munduko erronka tekniko konplexuenetako batzuei erantzuteko gai den industria proiektu baten bilakaera islatzen du.

sarbideak, drainatzeak, egiturak, logistika, segurtasuna edo gauzatze denbora gero eta zorrotzagoak.

“40.000 pertsona eremu batean sartzeari, sarbideek behar bezala funtzionatzea, igogailuak, argiztapena, klimatizazioa... Gure helburua da azpiegitura horrek guztiak funtzionatzea eta oharkabean pasatzea. Horretara-

ko, futbolik ez badago ere, urtean 365 egunetan lan egiten dugu, prebentzio eta zuzenketa ekintzekin”, adierazi dio Jokin Oroz Realeko azpiegitura arduradunak Begirari.

Futbol estadioak etengabeko bilakaera bizitzen ari dira, eta horrek zeri-kusi handiagoa du bizi dugun eredu ekonomikoarekin, kirol ikuskizunarekin

berarekin baino. “Lehen belardia eta eserlekuak ziren, eta, zortea izanez gero, lau taberna ere izango ziren estadioaren barruan. Orain “estadio antzak” sortzen ari gara, futbol estadioen erabilera gero eta gehiago baloratzen ari gara, kirol jardunetik harago”, eta aldaketa horrek, Jokin Orozek komentatzen duenez, eraginkortasun ekonomikoarekin du zerikusia: “Deigarria zen Anoetakoa bezalako estadio bat, hartzen duen espazio handiarekin, urtean 20 egunetan baino ez erabiltzea. Ahalik eta egun gehienetarako erabiltzea bilatzen da, ekonomikoki eta alderdi guztietan bideragarria izan dadin”.

Joao Carlos Fonseca ULMA Constructioneko Brasilgo operazio zuzendariak berak baieztatzen duen zerbait da, eta, hornitzailearen ikuspegitik, hau gaineratzen du: “bilakaera horrek eskatzen du egungo proiektuek jasagarritasuneko, irisgarritasuneko, segurtasun masiboko eta arkitektura askoz konplexuagoa eta futuristagoa integratzea, duela 40 urteko egiturekin alderatuta”.

Testuinguru horretan, ULMAk garutako hainbat soluzio presente egon dira azken urteetako kirol obra garrantzitsuenetako batzuetan. Lan hori askotan ikusezina da ikuslearentzat, baina erabakigarria horrelako azpiegituren funtzionamendua eta segurtasuna bermatzeko.

Estadio Metropolitano (Atlético de Madrid Kluba).



Baloia mugitzen hasten denean, ikuskizunaren arrakastaren zati handi bat oharkabean pasatzen diren baina funtzionatzeko oinarrikoak diren azpiegituren mende dago.


Eta zaleak, ziurrenik, gol bat egiten duenean edo estadiora sartzen denean inoiz erreparatuko ez duen arren, esperientzia horren zati bat, hain zuzen ere, denak behar bezala funtzionatzearen mende dago: sarbide seguruak, ebakuazio eraginkorra, azpiegitura erresistenteak, soluzio fidagarriak eta iraunkorrak.

### Euskal ingeniari-tza agertoki globaletan

Ez dago ikuskizuna gehiago zapuztu dezakeen ezer, egoera txarrean da goen belarra baino, batez ere euriagatik. Gainera, aitzakia bikaina da talde galtzailearentzat. ULMAk emandako drainatze soluzioak funtsezko zatia dira baloia aurrera egin dezan. Eta, jakina, baloirik gabe ez dago festarik.

“Ezin duzue imajinatu 63x110 metroko azalera horrek ematen duen lana. Anoetako belarra hibridatua da, alde bat artifiziala du eta beste bat naturala, eta horrek 24-7 langile espezializatuen egotea eskatzen du. Badirudi lau eserlekuko belardia dela, baina askoz ere zailagoa da...”, aitortu du Orozek, Liga osoko kalitate oneneko soropiletako bati buruz hitz eginez, zeinaren drainatze sistema ULMA Architectural Solutionsek egin baitu.

Negozio honek dozenaka futbol zelaien drainatze sistema diseinatu du, nazioartean garrantzitsuenetako batzuk barne. “Erronka nagusia da sistema instalazio bakoitzaren behar espezifikoetara egokitzea, bizitza erabilgarri osoan funtzionamendu hidrau-



liko eraginkorra eta segurua bermatzeko”, esan digu Alex Gutierrez ULMA Architectural Solutionseko drainatze proiektuen ingeniartzako arduradunak. “Aldagai ugari aztertu behar dira, hala nola inguruko plubiometria, zelai naturala edo artifiziala den...” Bezero bakoitzari bideratutako neurria egindako soluzioak ULMAren identitatea dira. “Brasilgo Arena MRV estadioaren kasuan, antolaketa mailakatu batean kokatutako bi kanalen konfigurazio bat proposatu genuen, uraren ebakuazio abiadura handitzeko diseinatu”. Joko zelaia drainatzeaz gain, estadio modernoek ikus-entzunezko emankizunen eskakizun operatiboei erantzuteko gai diren azpiegiturak behar dituzte. Instalazio batzuetan, hala nola Valladolideko José Zorrilla estadioan eta Donostiako Anoeta estadioan, ULMA Architectural Solutionsek kable elektrikoen hodie-tarako soluzioak ere eman ditu. Hala, kableak kanalizazioan ordenatuta geratzen dira, eta gainazala leun eta bere gaitetik ibiltzeko moduan geratzen da. Erronka bakoitzerako irtenbide bat.

Horregatik, horrelako obretan parte hartzeak gaitasun industrial baina askoz gehiago eskatzen du. Ezagutza teknikoa, nazioarteko koordinazioa, obra erritmo konplexuetara egokitzea eta, batez ere, konfiantza eskatzen ditu. Munduko proiekturik konplexue-

netako batzuetan lan egiten duten eraikitzaile, ingeniari eta bezero handien konfiantza.

“ULMA, erronka batzuei aurre egin behar diegunean, esaterako, Brasiliako Mané Garrincha Estadio Nazionalaren proiektuari erantzun behar izan genionean, gure erronka nagusia zen soluzio tekniko bereziak eskaintzea, produktibitatea hobetuko duten eta egitura konplexuetan exekuzio epe laburragoak bermatuko dituzten sistemak eskaintzea”, hala nola futbol estadioak. Horrelako proiektuetan, exekuzio epeak estuak izan ohi dira, hasiko den denboraldi berriak edo Munduko Txapelketa batek presaka aritzea eskatzen baitute, eta horrek asko baldintzatzen du.

ULMA Construction Brasilek dagoneko badu esperientzia mundialista, Latinoamerikako herrialdeak 2014an antolatu zuen edizio hainbat estadioren eraikuntzan eta birmoldaketan parte hartu baitzuen, baina Fonseca gehien nabarmentzen duen mugarrizko estadio nazionalarena da: “obra honetan merkaturatzen eskuragarri genituen enkofratze eta eskoratzeko sistema ia guztiak aplikatu genituen. MK zertxak erabiliz konpresio eraztuna egitea izan zen gure bereizgarri nagusia”.

Jose Zorrilla Udal Estadioa (Real Valladolid FC).



**DANEL ORTEGA** / ULMA Forged Solutionseko general managerra Saudi Arabian



## Gerra batek plan guztiak aldatzen dituenen

Saudi Arabiara joatea eta han ULMAren proiektu estrategiko bat abian jartzea bere bizitzako erronka profesionala izan zen Danel Ortegarentzat. Irango gatazka belikoaren ezandaren ondorioz, ordea, bere esperientzia erresilientziari, lidergoari eta, planeatutako guztia aldatzen denean, egokitzen jakiteak duen balio izugarriari buruzko ustekabeko ikasgaia izan da.

Dena dei batekin hasi zen: norbait behar zuten Saudi Arabian lantegi bat zerotik martxan jartzeko. Une horretan, Danelek jakin zuen bere bizitza aldatzeko zorian zegoela. Misioa argia zen: ULMA Forged Solutions Saudi Arabian

ezartzeko prozesua gidatzea, negozioaren lehen lantegi industrialia zerotik eraikiz Oñatitik kanpo. Anbizio profesionalaren eta familiaren nazioarteko abentura bat bizitzeko nahiaren nahasketa batekin, Danelek mailetak egin zituen. Ez zekien, hala ere, erronkarik handiena ez zirela makinak izango, gerra baten ziurgabetasuna baizik.

Iritsi zenean, kultur talka handia nabaritu zuen. Danelek etxe orratzak eta urbanizatu gabeko auzoak elkarrekin zeuden mundu bat deskubritu zuen, lanean presaka ari-tzea ulertzen ez zuen jendea deskubritu zuen. "Lan egiteko abiadura moteldu behar izan nuen. Han, konfiantza ez da irabazten aurkezpen bikainekin, baizik eta etengabeko presentziarekin, promesa txikiak betez eta enpresa gisa baino lehen pertsona gisa nor zaren ikus dezaten utziz", azaldu du. Apaltasun eta pazientzia ariketa bat izan zen, eta bere gaitasunak arlo teknikotik haratago zabaltzera behartu zuen.

Dena aldatu zen alarmak hasi zirenean. Egokitzapen prozesu bat zena biziraupen krisi bihurtu zen. “Gerrako lehen gaua surrealista izan zen, alarmek 40 minutuan behin jotzen zuten. Entzungailuak jarrita egiten genuen lo, gure seme-alabak alertekin esnatu ez zitezen”, gogoratu du. Etxe gainean interzeptazio antiaereoaren bibrazioak sentitu zituenean, une horrek muga bat ezarri zuen: “Une horretan argi ikusi genuen hura benetan zihoala eta ezin genuela zain jarraitu. Orduan esan genuen: honaino, eta Oñatitik diseinatutako irteera protokolo batekin joatea erabaki genuen”.

Gaur egun, Danel oreka konplexu batean bizi da: tarteka Saudi Arabiara bidaiatzen du proiektuaren pulsuari eusteko, bere familia etxean zain dagoen bitartean. “Astuna da burua aldi berean bi lekutan edukitzea; sentitzen duzu ez zaudela ez hemen eta ez han”, aitortu du. Hala ere, proiektuari buruz duen begiradak bere horretan jarraitzen du. Lantegiak dagoeneko badu kalitate ziurtagiria (ISO 9001 approved), eta Saudi Aramcorekin elkarriketak aurrera doaz, bere lana – eta Oñatitik babesten duen talde osoarena – fruituak ematen ari dela erakutsiz, zailtasunak zailtasun.

Bere burua gehien harritu duena ez da bere trebetasun teknikoa, bere sendotasuna baizik. “Kontrol absoluturik ez izatearen sentsazioarekin bizitzen ikasi dut, eta, hala ere, erabakiak hartzen jarraitzen dut”. Bere ustez, etapa hau lan arloa gainditzen duen bizitza lezio bat izan da: “Erlatibizatzen irakatsi digu, gertukoaren babesaz gehiago baliatzen, eta ulertzen proiektu handiak ez direla soilik plangintzarekin eraikitzen, baizik eta beste pertsona batzuk sostengatzen dituzten pertsonekin”.



*“Kontrol absoluturik ez izatearen sentsazioarekin bizitzen eta erabakiak hartzen jarraitzen ikasi dut. Esperientzia horrek baieztatu dit uste baino askoz erresistenteagoa naizela”.*

**Proiektuaren funtsezko datuak**

<b>15M€</b> INBERTSIOA	<b>40</b> LANPOSTU 3 edo 4 URTE
Abian jartzea	Erabateko eraginkortasuna
2026	2027

Orain, uda honetako behin betiko itzulerari begira, Danel eta pa berri baterako prestatzen ari da. Ez da bide erraza izango, baina itzultzen da jakinda bere familia eta bera uste baino indartsuagoak direla. Atzera begiratu, Danelek konbikzio argi batekin laburbiltzen du bizitako guztia: “Egokitzapen, ikaskuntza eta batasun esperientzia bat izan da. Ez da bide erraza izan, baina erlatibizatzen, geure buruarengan konfiantza handiagoa izaten eta familiaren, ingurunearen eta taldearen babesa baloratzen irakatsi digu”.

# Mugigune, errehabilitaziorako eta prebentziorako osasun gune berria



**ULMAk bultzatutako zerbitzu berri honek fisioterapia, teknologia eta jarraipen pertsonalizatua uztartzen ditu, bizkarreko eta sorbaldeko lesioak prebenitzeko eta errehabilitatzeko.**

Pertsonak zaintzea da ULMAren eredu kooperatiboaren zutabeetako bat. Horregatik, proiektu hau Lan Osasuneko Zerbitzuak detektatutako beharrak aztertu ondoren sortu da, batez ere gerrialdeko eta sorbaldeko minekin eta lesioekin lotutakoak, horiek baitira gure lan ingurunean ohikoak.

“Proiektu honen bidez, arreta prebentiboa eta asistentziala ematen saiatuko gara, eta, bereziki, gure pertsonen bizkarrean eta sorbaldean jarriko dugu arreta”, azaldu du Mikel Uñak, ULMA Taldeko Laneko Segurtasun eta Osasuneko koordinatzaileak.

Zerbitzu berria bost aparatu espezializaturekin hasi da oraingoz, eta Athlon kooperatibarekin lankidetzan

garatu da. Kooperatibak hiru hamar-kada baino gehiagoko esperientzia du lan inguruneetako osasunaren zaintzan. Gainera, David Health Solutions sistemaren gailu espezializatuak ditu. Finlandiako metodologia horrek mugikortasuna, indarra eta koordinazioa hobetzen ditu, ariketa gidatu eta pertsonalizatuen bidez.

## **Pertsona bakoitzari egokitutako programa bat**

Mugigunek bost makina espezifikoko ditu: hiru bizkarrezurra lantzeko dira, eta beste bi sorbalda indartzeko eta errehabilitatzeko. Era berean, espa-

Programak emaitza oso itxaropentsuak eskaintzen ditu, minak % 90 ere murriztuta, eta indarra % 50 ere hobetuta, eta mugikortasuna % 20.

zioak pantaila interaktibo bat du, eta, bertatik, pertsona bakoitzak bere ariketa pertsonalizatuak egin ditzake, identifikazio txartel baten bidez.



*“Mugigune helburu argi batekin sortu da: lesioei aurrea hartzea eta gure pertsonen beren osasun muskulueskeletikoa modu prebentibo, pertsonalizatu eta jasangarrian zaindu ahal izan dezaten laguntzea”.*

**MIKEL UÑA** - ULMA Taldeko Laneko Segurtasun eta Osasuneko koordinatzailea



**Gaixotasun osteomuskularrak dira lan eremuko ondoezaren, muga funtzionalaren eta absentismoaren arrazoi nagusietako bat.**

Programa 18 saiotan garatzen da, astean bi egunetan banatuta. Hasi aurretik, parte hartzaile bakoitzak hasierako balorazio funtzionala egiten du, banakako ibilbide bat diseinatzeko eta ariketak beren behar zehatzetara egokitzeko. Prozesua amaitzean, beste ebaluazio bat egiten da, bilakaera eta lortutako hobekuntzak neurtzeko. Parte hartzaileak ULMA Taldeko Lan Osasuneko Zerbitzutik bideratuko dira, irizpide medikoak zein lanpostuen ezaugarri fisikoak kontuan hartuta.

**Prebentzioa eta ongizatea**

Erabilitako metodologiak fisioterapiako laguntza profesionala eta teknologia

espezializatua uztartzen ditu, mugikortasuna, indarra, erresistentzia eta koordinazioa modu seguru eta progresiboan lantzeko.

Errehabilitazioaz harago, Mugigune prebentziorako bokazio argiarekin jaio da. Helburua ez da soilik molestia zehatzak tratatzea, baizik eta lesioak prebenitzen laguntzea, ohitura osasungarriak sustatzea eta pertsonen ongizate fisikoa modu iraunkorrean indartzea.

“Gune horiek osasunaren etorkizuna adierazten dute enpresetan. Bere helburu nagusia lesio muskuloeskeletikoak prebenitzea eta errehabilitatzea da, eta pertsonen ongizatean laguntzea”, nabarmendu du Athlongo Iker Irastorzak.

Antzeko programetan jasotako ebidentziek oso emaitza positiboak erakusten dituzte, eta hobekuntza esanguratsuak izan dituzte mugikortasunean eta indarrean, bai eta minaren murrizketan ere.

Ekimen horrekin, ULMak aurrera egiten jarraitzen du bere enpresa eredu osasungarrian, prebentzioaren eta proaktibitatearen kulturaren alde eginez, non pertsonen ongizatea eta zaintza eguneroko bizitzaren funtsezko parte diren.

*“Fisioterapiaren eta teknologia espezializatuaren konbinazioak aukera ematen du mugikortasuna, indarra eta minaren murrizketa modu pertsonalizatuan lantzeko”.*

**IKER IRASTORZA** - Athlon



# Musikaz haraindiko ahotsak

**Proiektu batzuk beren jardueratik harago doaz. Ahalegina, konpromisoa eta gizartearekiko harremana ulertzeko modu bat dira. Donostiako Orfeoia da horietako bat.**

Munduko orkestra eta zuzendari handiek aintzatetsia, Orfeoiak lehen mailako kalitate musikala eta errealitate berezia uztartzen ditu: beren bizitza profesionala, entsegu orduak, bidaiak eta nazioarteko talde onenen eskakizun artistikoa uztartzen dituzten pertsonen osatzen dute.

Bikaintasunaren, ahalegin kolektiboaren eta errotzearen arteko oreka horrek modu naturalean konektatzen du ULMA Orfeoiarekin.

“Eremu desberdinetakoak bagara ere, balio oso garrantzitsuak partekatzen ditugu, hala nola pertsonetikiko konpromisoa, bikaintasuna bilatzea, talde lana, lurraldean errotzea eta proiektuen erantzukizunean eta jasangarritasunean oinarritutako epe luzeko ikuspegia”. Jose Antonio Sainz Alfaro, 1987tik Orfeoiaren zuzendaria dena, ari da hizketan.

Sustraitzea eta balioak oso gureak diren kontzeptuak dira, eta Orfeoiaren ere esanahi jakin bat hartzen dute. “Gure gizartearekin lotura iraunkorra izatea esan nahi du. Mundu osoko agertokietan abesten dugun arren, gure sus-



traiak hemen daude. Donostian jaiotako erakunde bat gara, inguruko pertsonen osatua, eta goazen lekuan gure kultura eta balioak ordezkatzea dagokigula sentitzen dugu”.



## Erantzukizun partekatua

Ahalegin kolektiboa funtsezkoa da Donostiako Orfeoiaren historia ulertzeko. 1897an sortu zen erakundea, oraindik ere bere esentziaren parte den espiritu amateurrarekin, nahiz eta bere maila artistikoa nazioarteko panoramako zorrotzen artean kokatu.

*“Koru batean ikasten da emaitza kolektiboa beti dela banakako distira baino garrantzitsuagoa”.*

**JOSE ANTONIO SAINZ ALFARO**  
Donostiako Orfeoiaren zuzendaria



## “Orfeoiaren Lagunak”

“Orfeoiaren Laguna” izateak esan nahi du nazioarteko erreferentziako kultur erakunde bati bere ibilbidean laguntzea. Ez bakarrik babesarekin, baizik eta ikuspegi bat partekatuz: proiektu kolektibo bat hazten eta gure kultura munduan proiektatzen jarrai dezan laguntzea.

Ahalegin isilaren balioa aitortzea ere bada. Profesionalki musikan bakarrik aritu gabe, taldearen iraunkortasunari, diziplinari eta konpromisoari esker bikaintasun-maila lortzen dutenen ahalegina.

Errealitate gutxi islatzen dute hobeto nola talentu kolektiboak, denboran mantenduta, aparteko zerbait bihurtu daitezkeen.

“Koru batean ikasten da emaitza kolektiboa beti dela banakako distira baino garrantzitsuagoa. Ahots bakoitzak balioa du, hain zuzen ere, multzoaren parte delako. Entzuteko, elkarrekiko errespeturako, eskuzabaltasunerako eta erantzukizun partekaturako eskola da”. Bikaintasuna, ordea, exigentea da. “Iristea zaila da, eta are gehiago mantentzea. Etengabeko prestakuntza eta hobetzeko gaitasuna eskatzen ditu”. ULMAren esperientziatik gertu dagoen esperientzia bat da, etorkizunera begiratzen duen proiektu bat, konpromisoaren, talde lanaren, bezeroarenganako orientazioaren eta hobetzeko grinaren balioetatik abiatuta.

### Alderdi emozionalak iraun egiten du

Bere 50. urteurrenean, ULMAk oroimean iltzatuta geratzen diren une horietako bat bizi izan zuen. 2011ko irailaren 9an, Oñatiko plaza topagune bihurtu zen. Donostiako Orfeoiak, Bilboko Udal Bandarekin batera, kontzertua baino



Donostiako Orfeoiaren musikak Oñatiko plaza bete zuen, ULMAren 50. urteurrenaren ospakizunean.

zerbait gehiago sinbolizatu zuen aire libreko emanaldia eskaini zuen: pertsonengandik eta pertsonentzat eraikitzeak duen balioa ulertzen duten bi proiektu-eren arteko lotura.

Orfeoia bat dator legatuaren ideiarekin, jaso duzun leku hobea uztearen ideia-

rekin. “Belaunaldi berriek urte gehiago daramatzatzen inplikazioa, jarrera eta konpromisoa behatuz ikasten dute. Balioen transmisio naturala dago, partiturretatik askoz haratago doana”, aitortu du Orfeoi Donostiarreko zuzendariak; 2027an lau hamarkada beteko dituen koruaren gidaritzapean.



Enpresa Lasterketaren 17. edizioan parte hartu zuten ULMAko pertsona batzuk.

## ULMA, taldean, garaile Donostian

**ULMA Taldeak beste urte batez bat egin zuen Donostiako Enpresen Lasterketarekin, bere plantillaren parte hartze nabarmenarekin, eta, gainera, podiumera igotzea lortu zuen, hirugarren postu batekin.**

Joan den maiatzaren 17an, ULMAko 64 pertsonak zapatilak jantzi zituzten kirola, laguntasuna eta ongizatea uztartzen dituen hitzordu batean. 16 taldetan banatuta, parte hartzaileek esperientzia partekatu ezin hobea bizi izan zuten harremanak sendotzeko, ohitura osasungarriak bultzatzeko eta lan ingurunetik kanpo ere talde gisa hazten jarraitzeko.

Jardunaldiko unerik gogoangarriena gizonezkoen taldeak eskaini zuen, merezimenduzko hirugarren postua lortuz, Urko Biain, Oier Talledo, Alberto Bellosillo eta Haritz Alberdiren ahaleginari esker. Aurrez elkar ezagutu ez arren lotura berehalakoa izan zen. Hasiarako estrategiak funtzionatu zuen, baina asfaltoak bere sufrimendu dosia eskatu zuen. Une kritikoetan, hankak ahultzen zirenean edo erritmoa harrapatzea kostatzen zenean, elkarri laguntzea erabakigarria izan zen elkarri eusteko. Borroka gogor baten ondoren, laukoteak besoak altxatuta zeharkatu zuen helmuga.

Parte-hartzaileentzat, kilometroak eta izerdia partekatzeak egunero kolaboratzen duten lankideei aurpegia jartzeko eta harreman personalak estutzeko balio izan zuen. Ahalegin eta konplizitate horrek aztarna positiboa uzten du egunerokoan, etorkizuneko erronkei elkarrekin aurre egiteko konfiantza eta modua hobetuz.



Ezkerretik eskuinera; Urko Biain, Haritz Alberdi, Alberto Bellosillo eta Oier Talledo podiumean.

Une kritikoetan, hankak ahultzen zirenean edo erritmoa harrapatzea kostatzen zenean, elkarri laguntzea erabakigarria izan zen elkarri eusteko.



CARRERA DE EMPRESAS  
ENPRESEN LASTERKETA

### URKO BIAIN

*“Helmugara eskuetatik helduta sartzea izan zen egindako ahaleginaren bukaera perfektua”.*

### ALBERTO BELLOSILLO

*“Podiumera igotzea poz eta harrotasun handia izan zen, ULMAren elastikoa jantzita, taldea ordezkatzuz”.*

### OIER TALLEDO

*“Podiuma garrantzitsua izan zen, baina benetan daramadana da talde gisa korrika egiteak esan nahi duena bizi izana”.*